



GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

V. MODULUAREN GIDA

**JASANGARRITASUNERAKO
PARTAIDETZA ETA GARAPEN
KOMUNITARIOA**



2026-2027

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	3
2. MODULOKO GAITASUNAK ETA IKASKETA EMAITZAK	5
3. V. MODULUAREN EGITURA	6
4. V. MODULUKO DIZIPLINARTEKO JARDUERAREN (MDJ) EZAUGARRIAK	7
5. GARATZEKO LANAK	9
6. MDJ-REN EBALUAZIO JARRAITUA	13
7. MDJ-REN AMAIERAKO EBALUAZIOA	14
8. ETIKA AKADEMIKOA ETA PLAGIOA	15
9. SALBUESPEN EGOERAREN KASUAN	16

1. AURKEZPENA

V. modulua Gizarte Hezkuntzako graduaren 3. mailako 1go lauhilekoari dagokio. Modulu honetan 3 ikasgaik hartzen dute parte: *Garapen komunitarioa*, *Gizarte eta Kultura Dinamizazioa* eta *Garapen Jasangarriko Hezkuntza*, eta hirurek konpartitzen duten eremu amankomuna jorratzea du helburu: planetaren mugak aintzat hartuz, komunitatearen garapena eta kohesio soziala sustatzeko gai den praktika profesionala eragiteko baliabideak eskaintzea.

Lehenik, egungo testuingurua aintzat hartzea garrantzitsua da. Egiaztatu denez, gizarteak duen hazkuntzak eta garapena-ereduak zuzenean talka egiten dute Lurraren mugekin. Eta horiek ingurumen- eta gizarte-ondorio larriak ditu, klima aldaketa, biodibertsitatearen galera, kutsadura, desberdintasuna, pobrezia eta elikadura segurtasun eza barne, kasu.

Hortaz, zientzialariek planetaren egonkortasunerako funtsezkoak diren 9 ingurumen prozesutatik 7 gutxienez gainditu dira honezkero, giza espeziearen biziraupena bera arriskuan jarritz, ingurumen aldaketa gogorak edo itzulezinak eragin bait ditzakete. Muga biofisiko horri eremu sozialki justua (denontzako oinarritzko sozialak ziurtatuz: elikadura, ura, osasun zerbitzuak, energia...) eta segurua gehitu behar zaio. Eta modu horretan definitzeko ekonomiak jardun behar duen espazioa, lurraldeak denontzat oparoak izan daitezten.

Beraz, egungo krisialdia ez dagokio ingurumenari soilik (krisialdi klimatikoa, biodibertsitatearen galera, materialen agorpena...), gizartea bere osotasunean hartzen baitu. Horrela adierazle guztiek krisialdi ekosozial handi batetan murgilduta gaudela ziurtatzen dute: ekitaterik ezaren, desberdintasunaren, bazterketaren eta pobreziaaren krisia. Eta horiek guztiek lotura dute garapen eredu honek inposatzen duen lurraren ustiapen masiboa, neurrigabeko kontsumoa eta baloreen krisiarekin ere.

Testuinguru honetan bizitza erdigunean jartzea erronka da, eta horrek erabaki eta ekintza guztietan giza ongizatea eta duintasuna leheneratzea dakar. Era berean, oinarritzko eskubideak bermatzea esan nahi du, hala nola elikagaia, etxebizitza, ura eta osasuna, eta pertsonen gizartean parte hartzeko eta beren bizitza zehazteko aukera ematea.

Beraz, modulu honen helburua zera da: ikasleak trebatzea jasangarritasunaren testuinguruan komunitatearen eta gizartearen hezkuntza sustatuko duten

testuinguruak eta gizarte-sareak jorratuz. Funtsean erronka bati heltzea: ezagutzak, trebetasun eta jarrerak osatzea etorkizun jasangarriak irudikatu eta eraiki ahal izateko denontzako onuragarriak, etorkizuneko belaunaldiak barne.

Horretarako, ekintza komunitarioa jasangarritasunaren testuinguruan abiapuntutzat hartuko dugu. Ekintza komunitarioa ikasketa eta praktiken esparru konplexua da, elkarren artean gurutzatzen baitira diziplinak eta ikasketak, mota askotako ikuspegi teoriko-praktikoak baititu. Elkargune bat da era askotako pertsona, talde, entitate eta erakundeentzat. Ekintza komunitarioaren helburua pertsonen eta komunitateen bizitza alderdi guztietan hobetzea da.

V. modulu honetan ekintza komunitarioak honako erreferente hauek izango ditu: Komunitate Garapena, Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza, eta Gizarte eta Kultura Dinamizazioa. Izan ere, ardatz garrantzitsu horietan oinarritzen da Gizarte Hezitzailearen lanbidea. Honez gain, modulu honetan egin beharreko kanpo praktikei esker (*Practicum* /), ikasleek testuinguru profesionala behatzeko aukera izan dute, testuinguru horietan balizko esku hartzeak, eta komunitatearekin eta komunitatetik egindako lanean oinarritutako programak martxan jartzeko.

Komunitate Garapena irakasgaiak, komunitateen, horien funtzionamenduaren eta ehun asoziatiboak (eragileak, elkartek, entitateak, erakundeak...) ezagutzea du helburu, Gizarte Hezitzailearen papera testuinguru komunitario desberdinetan ulertzeko eta ekintza sozio-hezitzaileak garatzen ikasteko, komunitatearentzat eta komunitatearekin. *Gizarte eta Kultura Dinamizazioa* irakasgaiak lidergoa eta gidaritza eskuratzeko beharrezkoak diren baldintzak aztertuko dira partaidetza sustatzeko asmoz. Horretaz aparte, sakonki aztertuko da komunitate ekintzan parte hartzen duten gizarte eragileek zer-nolako ezagutza duten, eta nola sustatzen eta lantzen dituzten trebetasun horiek. *Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza* irakasgaiak etorkizun humanoagoa, juxtuagoa, ekonomikoki bideragarria eta ekologikoki jasangarria baimenduko duten baloreak, gaitasunak, ezagutzak eta abileziak ematea du helburu, betiere, munduaren inguruko behaketa kritiko bat landuz.

Moduluko prestakuntzari dagokionez, gizarte ekintzaren arloko parte-hartzearekin eta konpromisoarekin lotutako gaitasunak (ezagutak, trebetasunak eta jarrerak) landuko dira. Horretarako, gizarte dinamizazioko prozesuak, harremanetan eta lankidetzan oinarritutako metodologiak, eta natura eta gizarte ingurunean integratutako gizakiaren inplikazioa landuko dira, Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuen markoan (NBE, 2015).

Helburua gizarte errealitatea eta jardun profesionala bera aztertzeko beharrezkoa den prestakuntza kritikoa sustatzea da iraunkortasunaren haritik etorkizun jasangarriak eraikiteko.

Gaitasun espezifikoak eta zeharkakoak lantzeko, ikasleak egoera espezifiko batzuetatik abiatuko dira, eta ekintza profesionala eta soziala hobetzeko proposamenak aztertu, interpretatu eta landu beharko dituzte, ikuspegi kritiko batetik. Hori guztia txostenetan eta beste zenbait dokumentutan islatuko da.

2. MODULOKO GAITASUNAK ETA IKASKETA EMAITZAK


Gaitasunak lantzeak zera dakar: "ikasketa orekatu eta konplexua, zenbait egitura kognitibo, intelektual eta emozionalak mugiarazten dituen eremu profesionaleko eta/edo pertsonaleko arazo edo egoerak konpontzeko". Ikasketa emaitzen arabera zer neurriraino lortzen den gaitasun hori ikus daiteke. V. moduluan hurrengo gaitasunak jorratu nahi dira ondoko ikasketa emaitza lortuz:

GAITASUNAK	IKASKETA EMAITZAK
5G1. Ikasleek, testuinguru profesionala edozein izanik ere, gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzearen oinarri teorikoetan oinarritutako argudioak erabiltzea, ahoz eta/edo idatziz. (CG1 eta CG6)	- Egoera errealean esku hartzeko prozesuetan sortzen diren zalantzak edo gorabehera arazotsuak idatziz modu egokian jasotzea. - Ikasleak aurre egin behar dien egoeren aurrean hezkuntza-erantzunak prestatzea bai ikasgelan, bai practicuma egin behar duen erakundeetan.
5G2. Ikasleek gizarte sare eta proiektuetako komunitate ekintzari buruzko gogoeta egitea, hura interpretatzea, eta hobetzeko proposamenak egitea, egoera errealean oinarrituta, eta, horretarako, gizarte eta hezkuntza eragile, prozesu eta baliabideak aintzat hartzea. (CG3, CG6 eta CG9)	- Gizarte-sareak eta -proiektuak garatzeko proposamenak egitea, ikuspegi komunitario baten barruan. - Dokumentu idatzi batean jasotzea moduluan zehar eraikitako ezagutza teoriko/praktikoak, proiektu edo programa bat ikuspegi komunitariotik aztertuz.
5G3. Ikasleek gizarte dinamizaziorako estrategiak proposatzea lankidetzaz garatzeari begira, gizarte partaidetza eta komunitate garapena bultzatzeko; betiere, kontuan hartuko dituzte oinarri etikoak, genero ikuspegia	- Egoerak/arazoak sistematikoki konpontzea, jarrera etikoa eta deontologikoa hartuz eta genero ikuspegia ere integratuz. - Egoera simulatu eta errealean aurrean parte-hartzea eta lankidetzaz bultzatzeko behar diren gizarte-trebetasunak praktikan jartzea.

eta gizarte erantzukizuna. (CG4, CG5 eta CG8)	
5G4. Ikasleek errealitatea interpretatzea gizarte eta ingurumen problematikaren ikuspegitik, premia errealak identifikatzeko eta iraunkortasuna oinarritzat hartuz proposamen hezitzaileak egiteko. (CG3 eta CG6)	• Hezkuntzako komunikazio harremanaren funtsezko oinarriak erabiltzea lanak aurkezteko eta prestakuntza prozesu interaktiboa gauzatzeko.
5G5. Ikasleek ahoz eta jendaurrean azaltzea gizarte eta hezkuntza arloko gaiei buruzko ideiak eta argudioak, baliabide didaktikoen laguntzaz. (CG8)	• Moduluan landutako gaiekin lotutako gogoetak eta ideiak ahoz azaltzea ikasgelan eta erakundeko taldean.
5G6. Ikasleek txosten idatziak prestatzea, argudio egokiak erabiltzea eta ezarritako irizpide formalak baliatuta. (CG9)	• Dokumentu eta txosten zientifikoak aurkeztea irakasgaietako eta Practicum I-eko gai garrantzitsuei buruz.
5G7. Ikasleek jarrera aktiboa eta arduratsua izatea ikasketa jarduera eta lanetan. (CG10)	• Parte-hartze eraikitzailea eta konprometitua izatea taldearen/ikasgelaren eta praktika erakundearen dinamikan.
5G8. Ikasleek jarrera arduratsua eta etikoa izatea lan taldeetan, eta eragina izatea lan taldeen gaitasunetan eta zailtasunak hautemateko eta konpontzeko zereginetan. (CG4, CG5, CG10)	• Taldeen barne funtzionamenduari buruzko ezagutza kolektiboa eraikitzea. • Ebaluaketaren inguruko tresnak era egokian erabiltzea (autoebaluaketa, koebaluaketa...).

3. V. MODULUAREN EGITURA

Moduluaren egiturak aipatutako hiru irakasgaiak eta MDJ (Moduluaren Diziplinarteko Jarduera) gauzatzea barne hartzen du, honako grafiko honetan ikus daitekeen moduan:



4. V. MODULUKO DIZIPLINARTEKO JARDUERAREN (MDJ) EZAUGARRIAK

Modulu honen MDJ, Euskal Herriko testuinguru zehatz batetan esku hartze berri bat garatzea du helburu, proposatzen diren esperientzietatik abiatuta. Proposamena modu egokian justifikatuta egon beharko da testuinguru horretan eta irakasgaiekin loturiko kontzeptuak barne hartuko ditu: esparru komunitarioa, partaidetza eta eraldaketa ekosoziala.

MDJ derrigorrezkoa da, 3 ECTSko irakaskuntza-zamaren baliokidea da (guztira 66 lan ordu ikasle bakoitzak, bakarka eta lan kooperatiboaren bidez) eta %15eko balioa du irakasgai bakoitzean. Ikasgelan, guztira, ikasgai bakoitzak 10 ordu eskainiko dio MDJren garapenari, hasierako eta amaierako aurkezpenak barne. **MDJ egitea ezinbestekoa da irakasgaiak kalifikatzeko eta gainditu behar da ere irakasgaiak gainditzeko.** Modulu honen egiturak gelako praktikak, talde bakoitzarekin tutoretzak eta ikasleen lan autonomia konbinatzen ditu, bakarka zein taldeka.

Modulu honen hasierako bakarkako lana jasangarritasunerako trantsizioaren ikuspegitik eskuhartze ekosozialen esperientzia esanguratsuen bilaketa eta analisia egitean datza. Amankomunean jarri ondoren, talde bakoitzak esku hartze baten proposamena egingo du Euskal Herriko testuinguru batetan.

Horretarako irakaslegoak ikasgela lau edo bost pertsonen osatutako lan-taldeak zoriz eratuko ditu ikasturtearen hasieran. Talde bakoitzak irakasle bat izango du tutore moduan, irakasketa-ikasketa prozesuan laguntzailea izango dena.

Ikasturtearen lehenengo egunean, **2026ko irailaren 7an**, MDJren aurkezpena egingo da. MDJren bakarka eta taldeka egin beharreko ariketak, erabili beharreko baliabideak, entregatu beharreko txostenak eta entregatzeko epeak azalduko dira. Urriaren 26an, Practicum-etik bueltan, eskolak hasiko dira eta orduan lan-taldeen konposizioa ezagutzera emango da.

Taldearen irakasleak izango du MDJren kalifikazioaren gaineko erantzukizuna eta moduluko gainerako irakasleen iritzia eskatu ahal izango du. Gida honetan azalduko pausoak betetzen dituzten MDJak soilik hartuko dira ontzat.

MDJk 1,5eko kalifikazioa izango du gehienez ere; kalifikazio hori irakasgaietan lortutakoei gehituko zaie.

4.1. Moduluko Diziplinarterko Jarduera (MDJ) egiteko salbuespenak

1. Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute Moduluko Diziplinarterko Jarduera (MDJ) egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.
2. Graduako ikasleek MDJ egin beharko dute, baldin eta, gutxienez, modulu bateko hiru irakasgaietan matrikulatuta badaude. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute egin beharrik izango.
3. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dituztelako) irakasgai gehien egiteke dituzten MDJ egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute MDJ.
4. MDJ egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10etik emango da, MDJren %15 aplikatu gabe.

4.2. MDJren ebaluazio jarraituari uko egitea

MDJren ebaluazio jarraituari uko egin beharko dion ikasleak **2026ko urriaren 23a** baino lehen moduluko koordinatzaileari, Unai Ortega (unai.ortega@ehu.eus) idatziz jakinarazi beharko dio.

Ikasle hori amaierako ebaluazio-sistemaren bidez ebaluatuko da, eta gutxienez bi tutoretzatara joateaz gain, moduluko irakasle taldeak adostutako banakako MDJ proba bat egin beharko du. Moduluen koordinatzaileak edo hark izendatutako pertsonen proba horren berri emango diote, ohiko edo ezohiko deialdiaren azterketa-egunean egin beharrekoa, hala badagokio.

5. GARATZEKO LANAK

5.1. Bakarkako Lana (Irailak 7-Urriak 23)

Practicum-a egiten den bitartean, bakoitzak **bakarka** egin beharko du ondorengo lana.

Egin beharreko lana honetan datza:

1. *MDJ-ri buruzko dokumentazioa eGelan irakurri.*
2. *Esperientzien zerrenda miatu eta:*
 - i. Aukeratu itzazu 3 esperientzia “baliabideak” atalean oinarrituta.
 - ii. Esperientzien deskribapena osatu (300 hitz gehienez esperientzia bakoitzeko): esperientzien jatorria, testuingurua, kolektiboak, helburuak eta eskuhartzea deskribatu, arrazoiak, hezkuntza-potentzialtasuna, etab. azaldu itzazu. Esperientzia bakoitzaren web-esteka gehitu.
 - iii. Hautatutako esperientzia bakoitza labur aztertzea. Komunitate-garapenarekin eta gizarte-partaidetzarekin lotutako elementuak eta prozesuak identifikatu. Ikuspegi ekosozialetik identifikatu esperientziek asetzen dituzten bizitzaren funtsezko gizarte-elementuak (elikagaien segurtasuna, osasuna, hezkuntza, errenta eta lana, bakea eta justizia, ahots politikoa -partaidetza, gizarte ekitatea, genero-berdinatasuna, etxebiitza eta ura) eta aintzat hartzen dituzten muga biofisikoak (biosferaren osotasuna, luraren erabilerak, ur geza, fosforoaren eta nitrogenoaren zikloak, ingurumen kutsatzaileak, ozeanoen azidifikazioa, atmosferako aerosolak eta ozono estratosferikoa) eta azalpenak eman.
 - iv. Zure txostena *Garapen Jasangarriko Hezkuntza* irakasgaiaren ikasgela birtualera (eGela) igo ezazu **2026ko urriaren 23** baino lehen (hau barne) “Banakako MDJ” izeneko karpetan. Ez dira lanak hartuko data horretatik aurrera eta lan hau egiten ez duenak nota baxuago izango du MDJko lanean (-0,2, 1,5etik).

5.2. Baliabideak

Esperientzien webguneak

- Entrepátios: <https://www.entrepátios.org/>
- Vínculo Ecosocial – Teachers for future Spain: <https://teachersforfuturespain.org/vinculo-ecosocial/>
- La Villana de Vallekas: <https://lavillana.org/>
- Som Energia: <https://www.somenergia.coop/es>
- Calafou — Colonia ecoindustrial postcapitalista: <https://calafou.org/es>
- Red de Transición / Iniciativas de Ciudades en Transición: <https://www.reddetransicion.org/>
- Udalsarea 2030 — Red Vasca de Municipios Sostenibles: <https://www.udalsarea2030.eus/inicio>
- Red de la Economía Alternativa y Solidaria: <https://reas.red/>
- Red de Municipios por la Agroecología: <https://www.municipiosagroeco.red/el-proyecto-de-red/>
- "Descarboniza! Que non é pouco..." Una experiencia educativa para la emergencia climática: <https://www.miteco.gob.es/es/ceneam/recursos/materiales/descarboniza-que-non-pouco.html>
- La solución estaba en un invernadero. https://elpais.com/elpais/2017/11/30/planeta_futuro/1512055152_754762.html
- Los ODS en mi comunidad. Una plataforma que ciudadaniza buenas prácticas comunitarias en Oaxaca. <https://pnudmx.medium.com/los-ods-en-mi-comunidad-95fbc398687>
- ONU Habitat. Por un futuro mejor urbano: <https://onuhabitat.org.mx/>

Oinarrizko bibliografia

- Álvarez Cantalapiedra, S. (2022). La producción social. *Pasajes*, 66, 25-40. <https://www.jstor.org/stable/27395957>
- Bisquert i Pérez, K.M., Meira Cartea, P.Á., & Agúndez Rodríguez, A. (2023). Ecociudadanía y educación del consumo alimentario. Buenas prácticas socioeducativas en iniciativas ciudadanas de consumo responsable. *Pedagogía social: revista interuniversitaria*, 42, 181-195. https://doi.org/10.7179/PSRI_2023.42.12
- Coma-Roselló, T., Blasco-Serrano, A.C., Dieste Gracia, B., & Sobradíel Sierra, N. (2023). Escuelas transformadoras. Camino hacia la ciudadanía global y la agenda 2030. *Contextos Educativos. Revista De Educación*, 31, 27-51. <https://zaquan.unizar.es/record/126261>
- Del Viso, N., Casadevante, J.L.F., & Morán, N. (2017). Cultivando relaciones sociales. Lo común y lo "comunitario" a través de la experiencia de dos huertos urbanos de Madrid. *Revista de antropología social*, 26(2), 449-472. <https://doi.org/10.5209/RASO.57614>

- Díaz Díaz, J.A., & Marrero Acosta, J.E. (13 de marzo de 2023). [Que corra el aire, o por qué abrir las aulas a los problemas sociales](#). *El diario de la educación*. Blog Por otra política educativa. Foro de Sevilla.
- Gutiérrez-Ujaque, D. (2023). Acciones y actuaciones hacia una educación de calidad y sostenible: un estudio de caso entre el Grado de Educación Social y el de Ingeniería Industrial. *Contextos Educativos. Revista de Educación*, 31, 93-116. <https://doi.org/10.18172/con.5475>
- Herrero, Y. (2022). Competencia climática: una propuesta transversal sobre capacidades en Acción por el Empoderamiento Climático. <https://educacionecosocial.com/2023/04/03/herrero-y-2022-competencia-climatica-una-propuesta-transversal-sobre-capacidades-en-accion-por-el-empoderamiento-climatico/>
- Meira Cartea, P.A., & Ramos Pinto, J.J. (2022). Educar para la Emergencia Climática: un imperativo ético y práctico. *Ambiente & Educação* 27(2), 1-28. <https://doi.org/10.14295/ambeduc.v27i2.14722>
- Raworth, K. (2012). [Un espacio seguro y justo para la humanidad](#). Documentos debate de Oxfam.
- Rodrigo-Cano, D., Picó, M. J., & Dimuro, G. (2019). [Los Objetivos de Desarrollo Sostenible como marco para la acción y la intervención social y ambiental](#). *RETOS. Revista de Ciencias de la Administración y Economía*, 9(17), 25-36.
- Rodríguez Muñoz, V. M. (2019). Educación ecosocial para la construcción de ciudadanía global. *Padres y Maestros / Journal of Parents and Teachers*, 380, 32-38. <https://revistas.comillas.edu/index.php/padresymaestros/article/view/12065>
- Roldán-Arcos, S., Pérez Martín, J. M. & Esquivel-Martin, T. (2022). [Educación para la justicia ambiental: ¿Qué propuestas se están realizando?](#) *Revista Internacional de Educación para la Justicia Social*, 11(2), 11-27. <https://doi.org/10.15366/rieis2022.11.2.001>
- Sauvé, L. (2014). Educación ambiental y ecociudadanía. Dimensiones claves de un proyecto político-pedagógico. *Revista científica*, 1(18), 12-23. <https://doi.org/10.14483/23448350.5558>

5.3. Taldeko Lana (Urriak 26-Abenduak 18)

Talde lanean garatuko den prozesuak fase desberdinak izango ditu:

5.3.1. Lehenengo fasea

- i. Marko teorikoa sortu. Horretarako krisialdi ekosozialaren sorrera eta ondorioak aurkeztu, eta komunitate-garapenak, gizarte- eta kultura-dinamizazioak eta hezkuntza ekosozialak eskaintzen dituen lanabesak identifikatu.
- ii. Taldekide bakoitzak aukeratutako 3 esperientziak partekatuko ditu. Taldekideek aurkeztutako tematiken artean 5 esperientzia hautatu eta hauek analizatu, esperientzia bakoitzean hezkuntza ekosozialaren erronkekin dituen loturak identifikatuz, deskribatuz eta argudiatuz.
- iii. 5 horien artean esperientzia bat aukeratu, analisi konparatibotik justifikatuz.

- iv. Aukeratutako esperientzia moldatu eta jarri ahal den Euskal Herriko herri /hiri/auzo baten komunitatea aukeratuz, aukeraketa arrazoituz (elkarrizketak, behaketak, ikerketa enpiriko edo teorikoak etab).

Lehenengo txostena: marko teorikoa, analisi konparatiboa eta aukeratutako esperientziaren deskripzio eta justifikazioa. Testuinguru bat aukeratu eta proposamena diseinatu. **2026ko azaroak 20**

5.3.2. Bigarren fasea

- i. Testuinguru horretarako proposamen zehatza diseinatu, berau aurrera eramateko beharrezkoak diren jarraibideak eskainiz.
- ii. Azken txostenaren entrega eta aurkezpena.

Behin betiko txostenaren egituraren inguruko argibideak: txostena era argudiatuan eta hausnarketa gisa idatzita egon behar du. Jarraitutako prozesua, hartutako erabakiak eta guzti hauen justifikazioa bilduko ditu. Txostenak arau akademikoak errespetatu behar ditu eta taldekide guztiek lan osoa gainbegiratu behar dute zehatz-mehatz entregatu baino lehen. **2026ko abenduaren 18**

Txostenaren egitura eta ezaugarriak:

15 eta 20 orri bitarteko luzera izango du, azala, aurkibidea eta eranskinak kontutan hartu gabe. Modu orientagarrian hurrengo egitura izango du:

1. Azala (Gradua, unibertsitatea, ikasturtea, modulua, lan mota (MDJ), izenburua, egileak, tutorea, data)
2. Aurkibidea (behar den modua aurkeztuta eta justifikatua)
3. Sarrera: Lana moduluan txertatu eta lanaren hurrengo atal desberdinen aurkezpena egin.
4. Marko teorikoa (krisialdi ekosozialaren testuingurua eta diziplinen gako eta ekarpenak)
5. Aukeratutako 5 esperientzien laburpena, karakterizazioa eta horien analisi konparatiboa.
6. Aukeratutako esperientziaren justifikazioa analisi konparatibotik.
7. Esperientzia hori martxan jarri ahalko zen testuinguru zehatzaren deskribapena, aukeraketa arrazoituz.
8. Testuinguru horretarako proposamen zehatza diseinatu baita berau aurrera eramateko beharrezkoak diren jarraibideak egin ere.
9. Erreferentzia bibliografikoak APA7 estiloa jarraituz.

10. Eranskinak: txostenaren informazioa eta ulermena osatzeko dokumentuak, taldeko aktak eta abar.

5.3.3. Hirugarren fasea

- i. Proposamen sozio-hezitzailearen aurkezpena eta defentsa.
- ii. Aurkezpenaren atalak: diziplinarteko analisia, testuingurua eta eskuhartze proposamena.

Lauhilekoaren azken astean aurkeztuko eta defendatuko da ahoz gizarte- eta hezkuntza-proposamena. Taldeak ausaz aurkezteko ordena ezarriko da. Banakako galdagarritasuna bermatzeko, aurkezpenaren unean taldekideen artean zozketatuko da aurkezpeneko hiru ataletako bakoitzaren esleipena.

6. MDJ-REN EBALUAZIO JARRAITUA

Gaitasunen bidezko irakaskuntza-ikasketa planteamenduan, beharrezkoa da gogoraraztea gaitasunen balorazioa eta lan baten menperatze mailaren adierazleen balorazioa ezin direla modu independentean egin. Izan ere, gaitasun kontzeptua modu integratuan ulertzen dugu: gaitasuna zeregin konplexu bat konpontzeko prozesua da. Beraz, ez ditugu gaitasunak ebaluatu behar, ikasketa prozesuaren kalitatea eta ikasleek (taldeek) egoera edo arazo bat konpontzeko egindako produktuaren kalitatea baizik. Horretarako, informazio hori biltzea ahalbidetzen duten adierazleak erabiliko ditugu, ondoren horiek egiaztatzeko eta baloratzeko (beheko taulan).

Azken finean, ebaluazioa jarraia eta formatiboa izan behar dela uste dugu. Prozesuan zehar, bai ikasleek bai irakasleek (lankidetzan jardunez) adierazleak eta ebidentziak erabiliko dituzte lana nola gauzatu den ikusteko. Era berean, ikasketen ahulguneak zehazteko eta horiek gainditzeko egin beharreko hausnarketa ezartzeko informazioa eskuratuko dugu. Modu horretan, ikasketak, ditugun zailtasunak eta horiei aurre egiteko moduak aztertuta, ikasketa prozesua indartuko dugu eta prestakuntza prozesu honetan funtsezkoak diren hainbat alderdi hautemango ditugu (horietako batzuk aurreikusitakoak).

MDJ gauzatzeko saioen egiturak ekintza planaren diseinuaren eta arazoarentzako konponbidearen aurkezpenen artean prozesua aztertze eta analizatzeko une bat sartzea ahalbidetzen du, ikasketa indartzeko helburuarekin. Horrek prestakuntza prozesuaren jarraipena egiteko aukera ematen digu, irakaskuntza-ikasketa prozesua

berriro bideratzea ahalbidetuko digun informazio baliotsua biltzeko. Saioak bost astetan zehar egingo dira, zeinetan irakasgai bakoitzak klaseko 1,5 ordu erabiliko dituen MDJrako edukiak, baliabideak eta trebetasunak jorratzeko. Moduluen azken astean MDJen ahozko aurkezpenak burutuko dira.

MDJ ebaluatzeko eta kalifikatzeko tresnak honako hauek dira: banakako lana, txosten partzialak, amaierako txostena, lanaren ahozko aurkezpena, MDJren mintegietako behaketak eta tutoretzak.

Taula. MDJren prozesua eta emaitzak baloratzeko adierazleak:

Idatzizko adierazpena	- Baieztapen idatziak, marko teorikoetan oinarritzen ditu. - Ideien koherentzia eta kohesioa adierazten du idatzera zehatz eta egokiaren bidez. - Txostenaren aurkezpen egokia erakusten du (aurkibidea, orrialdeak, sarrera, garapena eta ondorioak). - Bibliografia eta oin-oharrak sistema estandarretan ematen ditu
Ahozko espresioa	- Azalpenetan ideiak modu logikoan ordenatuta eta egituratuta daude. - Ahozko erregistro egokia darabil, ahots tonu eta hitz egiteko era ulergarri eta argiaz baliaturik. (gorputz-hizkera egokiaz lagunduta)
Talde lana eta parte hartzea	- Zereginak eskatutako denboran betetzen ditu. - Ekipoan aktiboki parte hartzen du taldearen topaguneetan, informazioa, ezagutzak eta esperientziak partekatuz.
Heziketa-jarduera etikoa	- Azterketa eta ebazpen proposamena, Gizarte Hezkuntzarako jarduera-kodearen gako etikoetan oinarrituz egiten da

MDJ-ren kalifikazioa ebaluazio-sistema jarraituan

Lan mota	Kalifikazioa
Banakako ataza (bakarkakoa)	0.2
Idatzizko txostena (taldekoa)	0.7
Lankidetza eta partaidetza (bakarkakoa)	0.3
Ahozko aurkezpena (taldekoa)	0.3

7. MDJ-REN AMAIERAKO EBALUAZIOA

Amaierako ebaluazio-sisteman, gutxienez bi tutoretza egingo dira MDJren koordinatzailearekin (edo hark izendatutako pertsonekin), baita banakako ataza bat eta amaierako MDJ proba bat ere. Azken proba horrek idatzizko azterketa eta ahozko defentsa izango ditu.

Ebaluazio jarraiturako deskribatutako ebaluazio-adierazle berberak aplikatuko dira.

MDJ-ren kalifikazioa amaierako ebaluazio-sisteman

Lan mota	Kalifikazioa
Banakako ataza	0.2
Jarraipena eta partaidetza	0.3
Idatzizko proba	0.7
Ahozko proba	0.3

8. ETIKA AKADEMIKOA ETA PLAGIOA

MDJn zehar, ikasleek konpromisoa hartzen dute honetan parte har dezaketen pertsonetikiko harremana (elkarrizketak, landa-lana edo ikerketa-jarduerak) etika-printzipio jakin batzuen arabera gidatzeko: pertsona guztien duintasuna eta errespetua bermatzea, edozein delarik ere haien adina, generoa, jatorria edo bestelako ezaugarriak; baimen informatua eskatzea eta parte-hartzaileen borondatezko izaera bermatzea; bildutako informazioaren konfidentzialtasuna eta datu-babeserako indarreko araudia betetzea; harremanean kalterik ez eragiteko neurriak hartzea; eta jarduera osoan zehar gardentasunez eta zintzotasunez jokatzeko. Printzipio hauek unibertsitateko ikerketa-etikako batzordeen jarraibideekin eta dagozkien lanbide-elkarteen [deontologia-kodeekin](#) bat datoz, eta ikasleek, beren jardunean horiek aplikatzeko konpromisoa hartzen dute.

MDJren ebaluazio-probak eta -jarduerak EHUren araudian ezarritako integritate akademikoaren, zintzotasunaren eta portaera etikoaren printzipioen arabera garatuko dira.

Hirugarrenek egindako lanaren kopia edo imitazioa ematea berezkoa balitz bezala zigortuko da. Plagio-susmoak txostena baztertzea ekar dezake, eta, ondorioz, MDJ ez onartzea. Bestalde, ikasleek aipu-arauak ezagutu eta behar bezala erabili beharko dituzte.

[EHUn adimen artifiziala erabiltzeko printzipio eta gomendioak](#) izeneko dokumentuan xedatzen denez, irakasgaian aurkezten diren lan eta jardueretan AA sortzailea erabili bada, nahitaezkoa da horren berri ematea, dokumentuaren I. eranskinean azaldu legez.

Teknologia hauen erabilera arduratsua bermatzeko, komeni da lan akademiko eta ikerketa lan guztietan honako hau betetzea:

1. Era esplizituan adieraztea AA sortzaileko zer tresna erabili den (izena, bertsioa, data...) eta argi azaltzea zer funtzio izan duen lana egiteko prozesuan.
2. AA sortzailea laguntza baliabide gisa soilik erabiltzea, inola ere norberaren lan intelektuala ordeztu gabe, eta behar bezala aipatzea zeintzuk diren sarrerak (prompts) eta lortutako emaitzak, baldin eta horiek lanean txertatu badira. Jarraibideen gainean zalantzarik edukiz gero, aztertu aipatu dokumentuaren I. Eranskina.

Mota honetako tresnak bidegabe erabiliz gero (esaterako, era automatikoan sortutako edukia berrikusi eta egokitu gabe, edota erreferentziarik gabe txertatuz gero), ulertuko da urratu egin dela [UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloa](#), eta horrek ondorio akademikoak eragin ahalko ditu.

9. SALBUESPEN EGOERAREN KASUAN

Moduluaren gida hau moduluaren garapen presentzialerako diseinatuta dago, baina balizko osasun egoeraren eraginaren arabera, aldaketak eta egokitzapenak izan ditzake, unibertsitateetik nahiz administrazioetik hartzen diren neurrien arabera. Nolanahi ere, egokitzapenak irakasle-taldeak egingo ditu, eta unibertsitateak ezarritako ildoekin bat datozen irizpide akademikoak jarraituko diete. Klaseak eten behar badira 2025-2026 ikasturtean, modulu honen irakasle arduradunak MDJ garatzeko beharrezkoak diren egokitzapenak egingo ditu.